ARGITARRILDA
1
Eguaztena
Bilbao, 1936

Euzkadi

ARPIDE-SANEURIJA
Bilbao'kua ... ... 9,00 ifko. iru hil.
Bilbao'atazkua ... 11,25 " "
Bazki-itunmena ... 62,00 " urtez
Atzerijetakuak ... 112,50 " "
Beldayen itundeba

XIII urtia || Idazkolea ta Banakolea: Correo, 17,1.º || 234 Idazkutxa || 17.810 Urrutizkiña || 7.182 zenbakija

Burdiña edestija Euzkadi'n

Anbiolatik euzkotarak igari eben euren buruba aldezteko, izkiluben biara, zura gertatzeko lankai, baita beste onetariko tramankuluben biar-ixana; eta nabaiturik bertoko mendijetan burdingai naikua eguala, asi ziran burdiña urtu ta landuten; lenenguetan ikatz ugari egozan mendi ta goyetan iragoten ebezan olaetara, abere ganetan eta narezka mia eruen, orobat ereka txiki-onduetan irasita egozan, uraren zamaz ta indarez txiringea eragiteko, baita sutzari axia egiteko ta auzpua erabilteko; bertan ogei-egetamar aztagako (librako) agoe txikijak urtuten ebezan, ari-ganian astintzen gabi ta malubakaz, besuaren indarez, burdiñazkuak ixan-aren, galtziru be, urtu ta landuten eben era onetara amasaspigaren gixaldirarte.

Zalantza-barik mendi ganetan agiri diran loratzak eta puzkak erakusten dauskubez lenengo oleak antxe irasi zirala, eta oindiño orma ausijak, urbidiak eta zepa metak ikusten dira, olako iragintzai dagokijoezan ixenak Markola, Apatiola, Olazara, Goikolea eta abar irauten dirala.

Eraikin andi ta aztunak asmetan ebeneko, eta beraz eragiteko ur asko biara ixaten ebela-ta, ibaretan eta ur askotako ibai-ertzetan iragi ebezan.

Geure egunetan, or ikusten doguz Ibaizabal-albuan ikaragarizko burdin-oleak azkenengo berogetamar urte oneitan iragi dabezala, antxe geure aberijon eta amordenian biar dan burdinetatik, ija erdija landuten dirala. Lenago, bariz, Euzkadi'n eta batez be Gipuzkoa'n ta Bizkaya'n edonungo erijetan banaturik egozan eundaka burdin-oleak; jakiña, etziran ixango len aitaturiko Ibaizabal-ertzeko ola andi oreilakuak. ¡Ezta bardinduteko be! Oraingo oreitan langiliak aneika lanian diñardube, geyenak atzeritarak, beste areik lau langilien menbian egozan; bata zan ijelia, beste urtzale bi, ta laugarena mia puzkatuten ebanak gatzamalia detuten eutsaen, lapikuari gatza ezartzen eutsalako, ta beste gustijen morroya zan; lau langile oneintzako, ola-gixona edo jabiak aratz (quintal) bakotxeko bost erial emoten zituzan; erialeko iru laurenak gatzamaliarentzako zan; ganekua banatuten eben beste iru langilien artian zati bardiñetan; onetzaz ganera ola-gixonak ijeliari ogei-ogetamaren bat ogerleko emoten eutsazan, eskupeko berarizkua, oizan lez, bere lana gustiz gogora zalako, baita beste langilien ardurea beragan egualako.

Burdin-aratz bakara urtuteko, biar ziran iru mia-aratz eta bosten bat ikatz zama, zoro biko zama bakotxa. Ola batzutan, astero, berogei aratzetik gora egiten ebezan.

Enao atak diñuanez 1.550'garen urtian Bizkaya'n ta Gipuzkoa'n 300 ola egozan, bertan 300.000 burdin-aratz gitxi gora-bera urtuten ziran, au da, ola bakotxeko anei aratz. 1644'garen urtian Bizkaya'n 152 ola andi ta txikijak egozan; 1658'garenian 107 andijak eta 70 txikijak, eun anei aratz botaten ebezalarik.

Ola andijetan amabi-amasei arobako agoyak urtuten ebezan, agoyagaz lau zati egiteko burdiñaga antzera kana bateko luze ta bost ontzako lodi; ola txikijetan burdiñaga zati oneik luziak egiten ebezan.

Bizkai'ko jauntxubak eta ola-gixonak eskatu eutsaen irugaren Karla'ri Suecia'ko burdiña ezegijala sartzen itzi baakalderirijan; onek, 1775'karen urtian lagi batzuk idatzi ebazan Suecia ta beste erkijetako burdiña sartzen gebentzeko. Suecotarak Cadiz'en irurogetamar erlotan burdin aratza saltzen eben, euzkotarak, ordia, ezin legikien emon larogei baño merkiago, alan be, ezer irabaz barik, baña lagija agertu zaneko Bilbao'n ordaintzen eun erle aratz bakotxa, ta geyago ordainduko zan Coruña'n, Sevilla'n ta Cadiz'en.

Aldi aretan bilduta ziran, aurerantzian ezin ixango ebela burdiña urtu, mendijetako zugaztijak gitxituten joyazalako; batzuk soluak egiteko, bestiak zugatzak ebagiten ebezanian nagitu ta aztuten ziran barijak jartzeko.

Euzkadi'n burdiña urtuteko antzin-antziñako oitura zala jakin erazoteko, ona emen Iñiguz Ibarguen'dar Jon'ak diñoskuna.

"Kisto'ren Jayotza baño 1758 urte lenago, Girion erialdoyaren, España'ko lenengo ankera, iru semetatik Laminio eritxonak, arokeriz ta indarez, burdiñaga luziak eta burdiñazko gezak eskatu eutsen; ori zala-ta euzkotarak batzara-egin ta erabagi eben ez emotia, zio orregatik gudaketa andija alkaren aurka ixan zan, euzkotarak bedar edendunakaz Laminio zuritu bai eben ta garale gelditu ziran."

Geure asabaen egintza onetzaz (amaika aldoskai itunak bururatzen yakuz!, ¡orduko azkatasun gozua!, ¡orduko euzkotar-arteko alkartasun matagarijak!, ¡oraingo joputasun lotsagarija!, ¡anai-arteko eztabaida utsa ta txindi ar-rangatik anai-salkerija...!

Azkatezan ixan ain ezkorak aberztaletzat geure buruba daukagunok, ezkerzan itundu ortze goibeldurik dakusgulako, odei baltz-ilunak zematzen gatubelako; gorantza, geure goguak eta geure bijotzak jaso dagiguzan, begiratu dagigun geure abendearen gaizkakunderako geure irakasle Sabin'ak irasi eban Alderdi Jeltzalia, bere altzuan eskutaurik, magal-barenian baturik asmo zuzenez, jauntxukeri barik, geure uste osuan aberijaren azkatasunian daningularik; auxe lortzeko, berton bilatu daikeguz geure arerijuak zauritu ta menberatzeko biar doguzan bedar edendunak; gogoz artu dagiguzan geure lagijen zuzentasuna, geure edestijan dirakurguzan zertzeladen irakaskintzeak, geure kirolen alatasuna, geure abestijen zolitasuna ta geure eliaren atzeritarakandiko bardingetasun ta berezitasuna. Onexek dira bake-aldirako geure arerijuen aurka erabili gegikezan guda-ixilan izkilu zorotzak.

Eskauriatza'tar Bedita.

Ontzako urrea

Arriokieta

III

Ordu biak miñutu bat gutxiagoan jaiki zan jokalarien nagusia eta garatz deitu zuan.

—Jaunak: ez degu geyago dirurik eta ezin jaraitu gentzake... Gaurko naikoa degu.

Luki bat batera sutindu zan. Kendu zituan bultzaka, bere inguruan berari bekatzez begira zeuden jokalariak, eta arin-arin joku aretotik erten eta lengorantz bezelaxe beruntz ere launaka-launaka ekalera malak igaroaz erten zuan kanera eta arizko jarlekurantz zuzendu zan.

Urutitik, gas farol baten argitasunera ikusi zuan nekatxoa.

—Jaungoikoari eskerak an dago oraindik—esan zuan

Umearengana urera-naz eskutxoa artu zion.

Gaxoa! Eskua daukan oza!!

Eldu zion bere besoakaz ta jaiki, lepoan eramateko ustez. Umearen burua atzerantz erori zan esnatu-gabe.

—Au loa dauka!

Bere bularean estutuaz, lo gogor atatik esnatzeagaitik begietan laztandu zuan.

Eta orduantxe ikusi zuan umearen betazalak itxi gabe zeudela, eta begiak erdi zabalik baña geldi-geldirik.

Izuak igaro zizkion garaunak alde batetik besteraño, eta zerbait igeririk jari zuan bere aoa umearen aoaren gañean: Ai, enetxoa! umeak ez zeukan arnasik!!

Eskaletxoari ostutako ontzako urea Luki jokuan aberastu zan bitartean diru aren jabetxoa otzak il zuan.

Luki'ri biotzetik estarira zerbait igo zitzayon, eta ia itoan bere indar guztiak batuta deadar aundi bat egin nai izan zuan... eta deadar au egiteko asmoz egin zuan indarak esnatu zuan bere lozorotik eta aurkitu zuan bere burua joku etxeko jarleku batean, diru guztia galdu zuanean exeri zan jarlekuan bertan. Goizeko bostetan, joku etxeko morroiak jokalari danen atzetik erten zuanean, ikusi zuan Luki lo, baña diru guztia galdu zuan ezkero nun lo egiñik ez zuala izango ta bertan utzi zuan, erukiturik.

Noiz edo noiz eguna argitu zuan. Luki'k erten zuan joku-etxetik, saldu zuan patrikan zeraman erlojua, burua arintzeagaitik bañoa artu zuan, gozaldu zuan eta zuzen zuzenean gudari-etxe batera jun eta Apirka'ko gudarietan sartzeko papera izenpetu zuan.

Gaur egunean Hem'tar Luki gudari burua da beti ondo agertzen da eta ondo dabil, bere lagunak oso maite dute, eta menpekoak lotsa ta itzal aundia gorde oi diote.

Bera da gudari-etxean jokalaria ez dan gizon bakara. Gabon gau artatik onera ez du anka ezurik joku-etxean ipiñi ez eta ere kartarik eskuan artu. Eta artuko ere ez.

Eta bere irabazia aundi-aundia ez dan aren, bai dirudi zerbait aureratzen duala ere. Ara zergaitik.

Lengo egun batean Alger'en bere atzetik zijuan lagun batek, Luki, Kasba kalean lo zegoan eskaletxo bat esnatu eta zerbait ematen ikusi zuan.

Jakin-miñak bultzata, lagun onek begiratu egin zuan ia zer eman ete zion Musteagaitik, eta zearo arituta gelditu zan.

Hem'tar Luki'k ontzako ure bat laga zuan eskaletxoaren eskutxoan.

Francois Coppee'ren "Le louis d'or. Conte de Noel,,'etik euzkeratuta.)

MUXIKA

JAUPA BAT.—Muxika'ko Emakume Abertzale-Batza'ko bazkidiak eralduta, urtarila 5'an roxeko amaretan Ariatza'ko txadonan jaupa abestuba ixango da, Bilbao'tar an (G. B.), muxikar gaste abertzale zin eta kistar ona zanaren gogo-aldez:

Idazki onen bitartez d egiten yake muxikar kistar bijotz on gustijei batez be abertzale eta E .-Batza'ko bazkide batxu be, ez-datela ge tu jaupa oretara eldu barik.

Eta zuk irakurle otoi Bilbao'ta Jon kistar ona zanaren gogo-aldez.

Lendakarija.

Gayak

URTEBARI

Salokarijak, urte-azkenian, benetako salokarijak diranak, beintzat, euren urteko gora-beraen denduna ikusteko-ta, urteko artu-emon gustijen aztertketa ziatza egiten dabe. Irabazijak lero baten iminten dabez, eta galtziak beste lero baten.

Gero, bariz, lero bijetako zenbakijak zenbatuten dabez, eta galtziak ala irabaztiak ixan dabezan, ikusi.

Aretara edo onetara; batera edo bestera, salokarija eztanik eztago. Bixitzako artu-emonak era askotako artu-emonak dira, ba.

Eta geyenak bestera uste ba-dabe, be, garantzirik geyeneko artu-emonak, barunbe-artu-emonak ixaten dira. Okitza ta ogasunetan artu-emon gitxi edo bape eztogunok, barunbiari begiratuteko gurane asti ixango dogu, bariz.

Alde onetatik begiratu-ezkero, zorijonekuak gara. ¡Bai bein!

卐 卐 卐

Eriketa-garatzetan nastauta dabiltzanak be, urteko gora-beraen aztertketa ziatz baten biarixana ba-dabe. Onein urteko irabazijak eztakigu ondiño norentzako ixango diran, ezta irabazijen lekuban galtziak ixango ba-dira be.

Gobernua, beñepein, urtia amatu baño lenago, poro-eginda jausi da. Eta jaurbidia zutunik dala urtia amatuko ba-zan, lengo zararen zapi zarakaz, barijarentzat janzkijak adaubau biara ixan dabe.

Langilen artian "krizija" edo lanik esa ugari dago. Baña Madrid'ko nausigodunen artian be "krizija" baño eztana bai-dabil.

Urte zara poro eta poro, porotadaka amatu ixan dabe, ta barija be poro-egiteko janzkijakaz jantzita asi dabe. Naste-boraste onetatik, ¿zek urtengo ete-dausku...?

ERIKETEA

Ona emen, eskerera ala eskumara, norantz jausiko dan eztakijala dendunian daguan aztakina.

Eskera ta eskumia, bata ta bestia, berantz jausi eztatezan, lerenak egiten dabiltz.

Areyo purukatu bi onein artian sortu dan gudea, guda gogora baxen negargarija ixango dala, esan biarik eztago.

Eskerak gaiztakeri asko egin ixan ba-eben, eskumak be, oretan, jaraitzaie ixan yakez, ba. Eta elori-azija erein ixan dabenak, zitori zuririk ezin itxaron leike. Edena erein ixan dabenak, edena batuko dau.

Eta edena ta gorotua baño erein ixan eztaben eskerr-eskumak, eurak erein ixan daben eden-azijaren alorteak etxietaratu biararen gomuteak dardaganian imiñi dauz.

Bilbao'ko Henao txadian bixi dan "Gaceta del Norte" ixeneko atso zimel min-luzetxuba be, eden-ereintzalien artekua dogu.

Iñori eragoten ekiteko baño eztala jayo dirudijan atso-zimel orek, aspaldijon egin ixan dauan lana, eriketa-solua eden-aziz eretia bakarik ixan da, ta geidlaren etxera negara ta zoritxara eruatia.

Min luzetxubari esijak kenduta iñoren kaltez esan ar ixan daben gustija esanda gero, esku zabalez erein ixan daben eden-azijaren landarea lur-gane gorantz azi ta azi egiten dala ikusi dauanian, lariturten asi da, baña. Berak erein ixan dauzan azijetatik, sugetzarak jayoten dirala ikusten dau. Eta ber-berak bixitzera ekari dauzan sugetzaroi esijak iminteko, esi-langile artezijak gura leukez, suge edendunei buruba apurtuteko gai diran laguntzale trebiak.

Eta "Gacetatxu" gaxuak oyu dagi; zarata, ¡karaxi...! Eskumakin buztartuta eskeren aurka jagiten eztana, "erebuluziñarijua" da—esan dausku.

Ori esatia ta "eurakin eztuana; Velarde ta velardetarakin eztuazanak erebuluziñarijuak dirala esatia, bardin da bariz.

Beraz, gu, Jeltzaliok, Henao txaideko "Gacetatxu" atso-zorgiñak ezetariko eruki barik burutik biatzetaraño egunoro zauritu ixan gatuzan Jeltzaliok, be, ber-berak bixitzaratu dauzan sugetzaroi burubak apurtuten lagunduten ezpa-dautsagu, "revolucionarios" garala esango dausku, ta masoitzat, komunistatzat eta gaiztokikotzat etsi. Eta azkenian, donoki-giltzak bere eskubetan bai-legozan, donokira sartzia be gebendu egingo dausku. ¡"Gacetatxu" gaxua! Bere ibilera txarak; bere eragote deungiak; bere eden-azijen ondorenak ekari ixan dautsoezan "tripalakaz" urte zara azkendu biara ixan dau, ta barijari azikerea emon biara be bai. Etxeko oio ta txitatxubei jaten emon, eta bilobatxu txikitxubei euzko-edesti bidezko ipuin politak edestubaz sendiko zorun gustijen erdijan gentzaz beterik bixitia baño besterik ezeukan atso-zorangatxu orek, ¡etxautsazak bere burubari buruko min makalak ekari...!

Eriketa-auzi onetan, gu, Jeltzaliok, eztakik nun geratuko garan. Aspaldiko eriketa-edestijari begiratuten ba-dautsagu, baña eskererantz ez eskumarantz igitu barik, erdijan geratuko garala uste ixan leike. Zentzunak eskatuten dauskuna, beñepein, orixe dala dirudi.

Eta Henao txaideko atso ezeskarijari, ber-berak bixitzara ekari ixan dauzan sugetzar bilduргari orei burubak apurtuten juateko deyak-dei, ta karaxijak-karaxi egiten etoriko ba'litzakigu be, bidezkuena ta zentzunekuena be berau da-ta, jaramonik be eztautsagu egingo.

"Gacetatxu" orek, aboko txaranbela azke ixan dauanian, sugetzar asko abotik jaurti ixan dauz, ba. Bera eretako diran egur asko batu ixan dauz. Oben asko egin ixan dauz. Eta orain, egin ixan dauzan oben gustijen ondorena begi-aurian ikusten dauanian; bere egiñen deungiak biztu daben goroto-su gustija indartuten ikusten dabenian, karaxika asi da, lagun-eske...

¡Erukarija! Aurtengo urtebarijak zoritxarik asko ekari dautsa. Goikua'ren zigorari bilduг ixateko da, atsotxu...

Uribitarte'tar Ibon.

Euskeltzaleen Orratza
Saltzalientzat
Lko. BAT
Saneurri berezia
ARRIETA ITXIZALEA
Legazpi, 10'an. - Urrut. 13.777. - Donostia

Estu ta larri

Auteskundiak gora, auteskundiak bera. Uruntxu dagozalakuan gara, baña Bilbao'ko izparingi baten letra goriskak ikeratu garoez. "La Gaceta del Norte"-ren oyu didar, ots eta ayenak entzuten doguzanian, entzun, mundu onen azkena laster dala uste dogu.

"Contra la revolución y sus cómplices". Itz orexek artu dauz eta ixilka ta mixilka geure aurka, be, oidalakuak esan daruaz. "Cómplices" orein artian gagoz. ¡Pozik gero! Baña izparingi zoro orek zer uste dau? "Todos los valores espirituales y materiales de España" zaindu daiguzantzat jayo garala? Geure eriko "valores" oreik, gauzezak dirala ala? Bare edo negar, zer egin eztakigu. Euzkadi'ko "valores materiales y espirituales" gustijak ondatuta, birinduta dagoz, baña "Gacetatxu,,'ri etxakoz otuten.

Eztauko zetan oyu-egin. Euzkadi'n ezta jazoko katastroperik. Uste osuan iraundu gatuzan abertzaliok zainduko doguz Urtzi'ren eta Aberija'renak. Bere-aldekuak nagusi ixan diranian, gutzaz ezta gomutau. Orduban edozer esan eroian, bai ba gixon tentelak egin daroenez, betiko ziralakuan egozan. Baña betikorik eztago ludijon. Gauг goyan dagonak, bijar beian egongo dala, oldoztu begi. Eta gauг erabili darabiltzun neurijaz, bijar neurtuko zatube.

Kisto'k erakutsi euskuna, aztu ya kon "Gacetatxu,,'ri: "Etsayai, be, on-egikezube". Urte osuan ezta ixildu; jausita egozanai musturak igurtziten ixan dautsez eta aberia amoratu egin da. "Catástrofe" ikeragarijak etoriko ei-dira, baña euzko-erijarentzat naiko katastrope ixan dira eskumarok. Grezi'ko matxinadea ixan zalarik bost ile eztira eta an gustijak baretu dira. Bakiak egin dabez. España'ko matxinadea jazo zalarik urte ta ileak. ¡Ondiño or dabiltz orduko tentelkerijakaz! ¿Zer egin dozube, ba, matxinada-zalioi egarija kentzeko?

Auteskundiak etoriko dira, baña alkartasunik ezta egingo. Betiko tokijan gagozan ezkero, araxe etori bediz "Gaceta" eta kidekuak. Zauri gordiñok eztoguz argitara atarako; kistar zintzuai dagokijenez portauko gara, baña lelotzat ezkagijezala autetsi.

Lar adiraldu dogu urte batean. Eskumarok egon diran bitartian, Euzkadi'ko oleak ondatu dira; burni-bidiak bestiai emon dautsez; Kontziertuari, be, aginkada gorijak egin dautsez; Euzko-Araudija bazteru dabe; euzko-aldunak eskatuten ixan daben gustija mai-perajaurti eroian. Iram eta burle geyegi jasan doguz, izparingi zoro baten izki gorijakaz gustija atzindu al-ixateko.

Nasai-nasai ta bijotz onez dagoz; auteskundick ezkabez ikeratzen. "La Gaceta,,'k eztauko garbi bere baruba ta ezkertarak nausi diranian zer itxaron daiken ba-daki. Orexek bilduга sartuten dautse erpietan, be. Txarto ibili dana eta gaiztakerija erein daunak, igali txarak batuko dauz. Urte osoko koleziñua esku-artian daukogu. ¡Zenbat guzur, zenbat kaluni! Guzur oreik dirala-ta, amaikatxu gixon on espetxeratu ixan dabez. Egunero gustijak atera biar doguz. Parkatuko dautsoguz irain gustijak, baña etxakuz aztuko. An Birgili'ren poeman Juno urtzime guzurezkuak iñuana: "Manet alta mente repostum". Gogo-erdijan tinki diraue, iñoiz aztu al-ixan ezgiteko eran.

Abertzaletasuna Baztan'e

Ibillaldiko berriak

¡Elura! Maluta zuri-sendodu elura mara-mara arida Elizondo'tik Almandotz-alderuntz Lazkor'tar Ezeel baztandar abertzale jatora lagur degula belbilaz irten geranean.

Egualdi-giroa ezda noski akerakoa "Belate" mendi-ospetsuaren akoneko eri-menditsu artaruntz abiatzko; baña bitarte oretan aurkitzen dran uritxoetako abertzale-anayak besarkatu-nayak eta ayen berixkak jakin-nayak zugaitz-aundi ta mardulaz paintzen dituzten alde ikusgari ayetarau gaitu.

Aureko-egunean ere ibili ategin bat egin gendun egualdi bigunxuagoaz, baña guziz euritsuaz, Erazu eta Narbarte-aldetik. ¡Atsegiña bai, bili urraxe, Baztan'go abertzale jator-batzuk ezagutzeko zoria ixan genduakoz.

Erazu-uritxoa Elizondo'tik Parantze (Francia)'runtz Nabara'k dien azkeneko eria dana, bai-daki nosli, irakurleak, baña gure irakurlerik geyenak ez-edo-dakite Erazu nabara diguz eririk abertzalienetako bat dela. Orengaitik deitu "atsegiña" egun-auritsu ontako ibiliari: giro-txararen nai-eza olako uri-abertzale oso bat aurkitzeak sendatu digulako.

Emengo abertzalien buru dan Barberena jaunak edestu digunez, azkeneko aldun-auteskundietan eri ontako autarki edo botorik geyenak abertzaletasunarentzat izan ziran.

—¿Eta urengoan?— galdetu diogu Barberena ospetsuari.

—¿Urengoan? Urengoan aunitz-geyago "voto" izanen dira Erazu'n abertzaliontzat—gogotsu ta pozkiraz erantzun digu erazuar abertzale ta euzkeltzale goragariak.

Emengo irakasle edo maixua ere, euzkeltzalia, "Argia,,'ko idazlia eta abertzale-zintzoa dela jakiteak, ezgaitu gutxi poztu.

Eskala osalari entzutetsua ere, ezagutu degu; baita analitasunezko izketaldi goxoa euki dogu beronekin.

¡Zorionekoa, ziñez, Barberena bezalako abertzale gogotsu bat, Erazu'ko irakaslia bezelako euzkeltzale bat eta Eskala jauna bezalako osalari ospetsu ta atsegin bat JEL-entzat duen, eria!

Uri-begiko ontan alako oroipen goxoak jasota, urbildu-gera belaxen, Narbarte'ra. Emen ere uri-txikitxoa izanagatik, ba'dira "Jaun-Goikoa eta Lege-Zara,,'ren ikuritzpean lan eta lan gitxenak. Oyetako bat sutsua, gogo-ta euzkaltzale okitua: Oteitza'tar osalari trebea.

Onek eman digu alde-untan abertzaletasunari jartzen zaizkion eragozpen makurgarien beri. Emen abertzaletasunari eutzizea, ezda txantxetako kontzeptu batez ere alderdikide gustietakoekiko, zi beardun batentzat; baña Otei-jaunak aixa aure eman oi-dio beredeko azkorentzat eragozpen izugarrikoa eta osabiderik-gabekoa dan ezerazko "inconveniente" makur oni. Bere ogasunen-gainetik "biotz - abertzale" daukanak, aixa garaitu oi-du Elizondo-kapa-beltzak eztaltzen dituan eri-aberiaren etsai-kaskarak; eta egiten ederr eta eredukor onen jabe dugu Nabarte'ko uritxoan bizi dagun Otei-jauna.

Egun gogoangari au atsegin izan zitzaigun, urengo eguna gaziegoa ezaigula izan, elur, otz eta guzi-aitortu dezagun.

Elizondo'tik irten orduko igaro gu Irurita.

—¿Batzoki'rik bai-alda emen?—de-diogu alboan degun Lazkor jaunari.

—Ez, Batzoki'rik ez; baña "Euzkadi-Langilien-Alkartasuna" ba'duzu ezkerrean 80 bazkide ingurukin—aren eran-tzun.

Eta geldituna'rik gabe jaraitu-degu Irurita'raño.

Karlista-eria degu au, bertan ez bi apezak aurenengo dirala. Baña ez keltzaliak dira, guziz, oyen artian gutxi bezala; eta atsegin izan zan berekin euki-dugun izketaldi amaitu. Buruan sarturik daukaten "Erege-ori oregaitik ezpalitz... gureak gitxi-agian, ain biotz-oneko bi apez abertzale.

Abertzale batzuk ere ba'dira Ziga'n. Eta oyetako bat, uri ontan ikasle dan Erentxun Aruar-margo ospetsua. Beronekin beste izketaldi-gozko bat euki ondorik, jo-dugu Rentería eta Almandotz'era, azkenik Lazkor'ko Azkatate'tar Joseba otsaun abertzale porokatuaren ikertaldian bukaera emateko egun-elurtsu ainbat ibilkundean.

Uri oyetan ikusi-gendunaz eta kerrate jaunakin euki gendun jardun-aberkoi - garantzisuaz zabalkiro-egingo-dugu J. I. urengo idazkayan.

Jeltzale.

!Bildur gaitean!

"Agiñan ezpanak baño barurago" dirausku gure esaera zarak, izadi legeagaz batean irakatsi nairik, urkuak izan bear dabela beñago.

Au dala-ta edo, lateri indartsuak eretxi bereziak artu ditue aspaldiko urtiotan, esiz inguraturik euraen muga gustiak, sartu ezkaitezan atzeritarak aretako seme langileari ogibidea kentzen.

Ez deritxagu txarto egiña dana, gure esaera zaragaz batean urkuak beñago izatea; baña, oso txarto deritxogu euraen luretan eretxi orek artu bestien aurka, eta eurak iñoren luretan yaun ta nagusi bizi nai izaten. Ezin giñake ontzat artu, neurea neuretzat eta zurea be neuretzat diñoan lege deungea. Ori bakar-bakarik legike indararen izenian, eta indara era gustietan nagosi izango bada, alpere'kuak dira lege eta arek aldeztuteko gizonak darabiltzan buru-auste gustiak. Ankaz gora beyoaz bein da betiko deungekeri ta guzurezko mamu oreri eregitako ondi eta irudi itxusiak.

Zer dala-ta artegatasun alperekoak boltxebiki ta komunistan aurka, dakusguzan deungekeriak badira, azi ta zimaura erne daitezan guri ta ugari landara izpitsu orek?

Eroen lana dirudi indarez ostu eta menperatu daben gizon ta eriak dagiezan lege ta aginduak, ontzat artuak izango dirala uste izatea.

Zenek eztaki erein doguzan azien muetakoak izan oi dirana aretatik ernetan diran landaratxoak. "Aretxak bere erikua dau ozpela" eta gure ganera datorkuzan naibageak ereindako deungekerien ondorengoak dirala, ¡zelan ukatu?

Zaletasun itzugaria izan dogu euzko-semeok, geure lur eta bazterak laguta igez egiten atzerietan zear, amez guzurezkoen ondoren, ainbat seme ederen biziak aretan galdu eta geure aberiari zor geutsan ospe ta ixena inorenari emonik.

Orain tamalez dakusguz yatoriz geureak diran baster, bizi-bide ta inguruak arotzan eskuetan.

Itxi dauskuez ateak, bestienak diran luretan lan egiteko orain artean legez, eta gure lurean, arotzak doguz yaun ta nagosi, indara eskubidetzat artuta.

Gaztedi talde zindo ta ereduz bateak ditugu gure itxas ertz eta baserietako urlak, etorkizun itunari begira, eta gure aberats ta lantegi artezkariak izadi legearen aurka, ezpanak agiñak baño barurago kotzat artuta besterik ez legez urkuak alde batera yartita, arotzari laguntzen geure luretan.

Baseri yaubeak ostera maizteran aurka, kale gogoran ganean ipiñi nairik sendi zindo garbi ta ugariak. Eta zergaitik? Etxe zarlak ordaindu ezdalezalata? Ez. Gaizto alper ta deun diralako? Ez. Eurn gogoen yaun diralako. Yopuak z diralako. Mata-dabelako euraen gitoriko eskubide ugazaba ... ganetik. Orixe gatik, nai dituez ... bada gezaldietan euren sediak bizi izan diran etxietatik. Euen gurasoen gurasoak jayo ta il zian etxietatik. Arrizerdi ta gogoakaz ainbat gizaldi batu-ta dagozan luetatik.

Zelangoak uste ozue izango diran ereintza deunge oen ondoren ernetzen diran landaratxoak ¡Bilduг gaitean!

Perulara.

ZEANURI

BATZOKIJA.—Sta gar dabil aspaldijan gure aberi-kbija. Gure mutiko berebixikuak dira antzoki-jayakaz ixitasuna emateko mukeг gengozan. Bada alafasuna spaldixuan! ¡Alan jarartu dayala!

Emakumak be, ogor daragoyoe eran gabonkarijak bildu ta zabaltzen txiroen artian; baa antzoki-jayetan mutilai bape eztaukea zorik argi-argi erakutsi dabe. Uregukn esateko itzko dot luzetxuago xan gura neukeba, baña beyoakije neska-mutiloi zorijonbercena guran egit aberkoyagatik.

Ze barraban dabi aspaldijan gure erijaz? Kanpoko bea-txorijak ikusiixan doguz erriko arazuak zuzendutako "órdenes terminante" ekarezala emengoentzat. Eztago nimenik orei txarrak berotuta ankakokoa eragiteko eran erirantza. Baña eurak ala bidezabaldu dautsenak ete dauko erua? Eta oraingo matazegaz zek urten bide ete dau? Lotsagarja!

BATZARA. — Utebari-egunean aratsaldeko ordu bijean "Landeta-gokoa" bazkunak artu-emon arazuak zuzenduteko.

Urtarila bostean ordubijetan batzarra. Batzokijan eta laurtan itzaldija gizonezko eta uste da, baita emakumiak.

Otxerin-mendi.

ZAMUDIO

E. A. B.—Lengo egun baten egin eben euren urteroko batzar nagusia, eri onetako Emakume Abertzale-Batza'ko bazkidiak.

Erabagi askonen ondoren, aftekari-batza barija ixentau eben; ara emen euren ixen-abixenak:

Lendakari, Llona'tar Miren Pilar.
Lendakari-ordeko, Ormaetxe'tar Gerbiñe.
Idazkari, Mendiguren'dar Karmen.
Txindi-zain, Bilbao'tar Albontsa.
Lenengo - aulkulari, Etxezarreta'tar Josebe.

Bigaren aulkulari, Orbea'tar Jaime.

Urten dabenari eskar bero bat, ek egin dituen lan ugarijakatik eta barijari. Goikua'ren laguntasuna ainbat-alde gogor jokatu dabien.

Tximista Ion.